

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**331/2021 Foru Agindua, irailaren 1ekoa. Ignacio Nanclares Reizabal Ogasun Zuzendaritzako Zeharkako Zergen Zerbitzuaren buru lanpostura atxikitzea (kodea: 1040.001)**

Ekainaren 7ko 259/2021 Foru Aginduaren bidez, deia egin zen Ogasun Zuzendaritzako Zeharkako Zergen Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1040.001) izendapen askearen bidez betetzeko.

Eskaerak egiteko epea amaituta eta deialdiaren bosgarren oinarriaren arabera, Ogasun Zuzendaritzak, espedientean jasota dagoen txosten arrazoituan, Ignacio Nanclares Reizabal proposatu du Zeharkako Zergen Zerbitzuaren buru lanposturako (kodea: 1040.001).

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren. Bestalde, ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ignacio Nanclares Reizabal Ogasun Zuzendaritzako Zeharkako Zergen Zerbitzuaren buru lanpostura atxikitzea (kodea: 1040.001).

Bigarrena. Foru agindu honek 2021eko irailaren 13tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean. Hori guztia, honako hauek xedatutakoarekin bat etorritz: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 1a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR